

OZEN I FORT 2026 – DEIALDIAREN OINARRIAK

SARRERA

Ozen i Fort sorkuntza egoitza bat da Bartzelonan, Musika Bulegoak eta Fabra i Coats – Fàbrica de Creació-k antolatua, Euskal Herriko eta Kataluniako artisten arteko elkarlana bultzatzeko diseinaturia. Bere helburua musika obra berri bat sortzea eta profesionalen eta publiko orokorraren aurrean aurkeztea da. Bi artista profesionalak (bat autonomia-erkidego bakoitzeko) elkarrekin lan egingo dute, sormen prozesuak partekatuz eta haien proiektzioa eta ikusgarritasuna zabalduz.

Ospe handiko kuradoretza profesional batek lagunduko die musikariei sormen egonaldian, proposamen artistikoen garapena eta sendotzea babestuz. Egoitzak aukera emango die hautatutako pertsonari/taldeei beren lana testuinguru garrantzitsu batean ikertzeko, sortzeko, grabatzeko eta aurkezteko, publikoarekin zein musika industriarekin konektatzeko.

1. PARTE-HARTZAILEAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko musikari profesional eta erdi-profesionalei zuzendutako deialdia (1).
 - Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon behar dute edo beren jardura profesionala hemen garatu behar dute.
- (1) Oharra: Euskadin jaio edo bizi diren pertsonak.

2. HAUTAKETA IRIZPIDEAK

- Artista profesionala edo erdi-profesionala izatea.
- Kataluniako artista batekin lankidetzan garatzeko sormen-proiektu egokia aurkeztea.
- Aurretiazko lanen kalitatea eta ibilbidea.
- Egoitza artistikoarekin lankidetzan aritzeko eta konpromisoa hartzeko gaitasuna.

Oharra: Euskal artistaren hautaketa Fabra i Coats – Fàbrica de Creació-k egingo du, erreferentziazko zuzendaritza artistiko baten laguntzarekin.

3. EGOITZA ARTISTIKOAK

- Hautatutako artistek bi egonaldi egingo dituzte Fabra i Coats – Fàbrica de Creació-n (Bartzelona):
 - **Lehen egonaldia:** 2026ko maiatza, sormen prozesua garatzeko.
 - **Bigarren egonaldia:** 2026ko iraila, Kataluniako merkatu profesionalean erakusketa prestatzeko.
- Fase bakoitzean artista katalan batekin lan egingo du.

4. ERAKUSKETA (SHOWCASE)



- 2026ko iraila: Kataluniako azoka profesional batean.

* Oharra: 2027an Euskal Herriko azoka profesional batean showcase bat eskaintzeko aukera aztertuko da.

5. LAGUNTZA ETA KONPROMISOAK

- Erakundeak bidaia, ostatu eta dieten gastuak ordainduko ditu, kontratua sinatzean adosten diren baldintzetan.
- 150€-ko ordainsaria egoitza-egun eta musikari bakoitzeko, 2.500€ gehienez hautatutako euskal proposamenagatik.
- Hautatutako Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonak edo taldeak irailean Katalunian egingo den aurkezpen publikoan parte hartzeko eta egoitzak aurreikusitako egunetan egiteko konpromisoa hartu beharko du.

6. INSKRIPZIOA

- Izena emateko inprimakia ezarritako epearen barruan bete eta bidali behar da.
- Eskatutako dokumentazioa eranstea: biografia, aurretiazko lanen erreferentziak eta proposatutako proiektu sortzailearen deskribapena.

* **Oharra:** baldintzak alda daitezke egoitza artistikoaren ekoizpenaren arabera.

